

D.E.B.A.

1. zenbakia (2024ko abendua)

Oiartzun

DAGOENARI
EGOKITU ALA
BORROKARA
ATXIKITU

Aurkibidea

Globalean pentsatu (lokalean ekin)

Europa, AEBren morroi

Herritik Herrira

Chiapas, babesa areagotzeko beharretan

Alternatiben Oi(h)artzuna

Burujabetz(et)aruntz, eraldaketa helburu

Gutunak

**Singularitate Bakoitzasuna (Berezitasuna?)
ordezkaezintasun gisa**

Lasai, nik kontatukoizut

**"Ehun urteko gerra Palestinaren aurka"
liburuaren aurkezpena**

Palestinari Oi(h)artzuna

Genozidoari STOP

Gure ohiturak deseraikitzen

**Sozialismoaren hastapenak:
eboluzioarekin dugun konpromisoa**


EUROPA, AMERIKETAKO ESTATU BATUEN MORROI

“Gaur, bi bizilagun elkarrekin borrokan ikusten badituzu, atzo bietako batek ingeles-estatubatuar baten bisita izan zuelako da”

Gaur egun, jende gehienak, oro har, uste du II. Mundu Gerrako aliatuen garaipena ia soilik Estatu Batuen botere militarri zor zaiola. Frantzian, hiru urtetan (1945, 1994 eta 2004) egindako inkesta batek, ordea, agerian uzten du nola aldatu zen frantziarren iritzia. Hollywoodek min handia egin du.

Datu pare bat nahikoak dira, Hollywooden errelato hegemonikoa hankaz gora jartzeko:

- Nazien armadaren porrota Stalingraden gertatu zen, bataila hark aldatu zuen betiko II. Mundu Gerraren norabidea; izan ere, ordura arte Europa mendebaldean barrena nahieran ibilitako III. Reicharen hilobia izan zen hura. Stalingradeko gudua 1943ko otsailean izan zen, eta Estatu Batuetako armadak 1944ko ekainean egin zuen Normandiako “lehorreratze handia” baina ordurako amaituta zegoen guztia.



- Gerran 28 milioi errusiar gudari eta zibil hil ziren. Ingelesen artean, 450 mila izan ziren hildakoak, eta estatubatuarren artean, berriz, 420 mila.

Sobietar Batasuneko armada gorriak garaitu zuen nazien armada, baina larrutik ordaindu zuen, bai ekonomikoki, bai giza galerari erreparatuta. Estatu Batuek, berriz, Europa kolonizatu zuten, beren kolonia bat bihurtuta.

Europak Estatu Batuekiko duen mendekotasuna ulertzeko, historiari erreparatu behar diogu. Abesti ezagun batek dioen moduan, Quién manda aquí? Quién?

OTAN-CIAko armada sekretuak Europako hainbat estatutan egon ziren (eta, jakina, hor daude oraindik): Italia, Alemania, Espainia, Frantzia, Belgika... Haien helburua erresistentzia komunistarekin amaitzea zen. Batez ere, Italian jardun zuten. Gogoratu behar dugu GALEko mertzenario asko italiarrak zirela. Hurrengo lerrotan Italiako adibidea:

1969. urtean, Gabonen aurretik, lau lehergailuk egin zuten eztanda, Erromako eta Milango hainbat leku publikotan. Guztira, 17 hildako eta 80 zauritu, gehien-gehienak nekazariak, egun hartako azokan lortutako dirua Milango Piazza Fontanako Nekazarien Bankura sartzera joandakoak. Estrategia makiaveliko bati jarraituta, komunistei eta ezker muturreko kideei egotzi zieten sarraski hura; pistak desagerrarazi zituzten, eta atxiloketa asko izan ziren, berehala.

Indarkeria molde haren une gorena 1980ko abuztuaren 2ko arratsalde eguzkitsu batean iritsi zen, Italiako jai nazionalaren egunean, potentzia

handiko leherketa batek txiki-txiki eginda utzi baitzuen bigarren mailako bidaiarien itxarongela, Boloniako tren geltokian: 85 pertsona hil, eta beste 200 izan ziren zaurituak eta mutilatuak. Boloniako sarraskia Europak XX. mende osoan jasandako atentatu terrorista handienetako bat da. Eta Italiako ezkerren zurrumurruen arabera, indarkeria-ekintza misterioitsu haiek Estatu Batuek Italiako komunisten aurka piztutako gerra sekretu bat ziren; arean ez zegoen frogarik, ordea, asmakizuna zirudien teoria hura frogatzeko.

1990eko abuztuaren 3an, Andreotti lehen ministroak batzorde parlamentarioaren aurrean hitz egin zuen, eta, Italiako gobernuko jarduneko kide gisa, baieztatu zuen, 1945etik lehen aldiz, NATOren agindupean zegoen segurtasun erakunde bat egon zela Italian. Andreottik bere txostenean zehazten zuenez, CIAren eta Italiako zerbitzu sekretu militarren arteko lankidetzak NATOren ezkutuko gerra-operazioez arduratzen ziren zentroek gainbegiratzen eta koordinatzen zuten.

Gladio armada sekretuak, Andreottik esandakoaren arabera, armamentu handia zuen. CIAk emandako ekipamendu guztia baso, soro, eliza eta hilerritan sakabanatutako 139 ezkutalekutan lurperatu zuten. Italiako lehen ministroaren azalpenen arabera, armategi horietan baziren "arma eramangarriak, munizioak, lehergailuak, esku-granadak, labanak, dagak, 60 mm-ko morteroak, atzerapenik ez zuten 57 kalibreko fusilak, miraila teleskopikodun fusilak, irrati-transmisoreak, prismatikoak eta bestelako ekipamenduak". Prentsak eta herritarrek CIAren ekintzen eta gobernuaren ustelkeriaren aurka egindako protestez gain, Andreottiren errebelazio eskandalagarriek benetako sukarra

eragin zuten armen bilaketan.

Zorra izan zen kolonizaziorako beste mekanismo bat. AEBk, Marshall planaren bidez, zorra erabili zuen Europako estatuak eta, Alemania bereziki, mendean hartzeko. Berreraikitzeko diru hura ez zen musutruk eman; aitzitik, itzuli beharreko maileguak ziren.


Beste bitxikeria bat...

Galdetuko baligute non dagoen AEBko armadaren baserik handiena beren lurraldetik kanpo, erantzungo genuke Iraken dagoela, Somalian... Ez, ba, Alemanian dago eta Rammstein du izena (musika taldeak bezala).

Hortaz, Sobietar batasunak nazismotik askatu zuen Europa, baina Estatu Batuek kolonizatu zuten: lehendabizi mendebaldeko Europa, eta gero ekialdekoa.

Behean dagoen mapan ikus daiteke non dauden kokatuta gaur egun European Estatu Batuetako baseak

BASES MILITARES ESTADOUNIDENSES DE MÁS DE 4 HECTÁREAS O 10M\$ DE VALOR EN 2022



(ez NATOrenak!!!), Errusia inguratzen.

Hego Euskal Herriak erreferendumean NATOri ezetz esan zionetik ia 40 urte igaro direnean eta iritzi hori errespetatu gabe jarraitzen dutenean, Estatu Batuek Errusiaren aurkako beste gerra batera eramane nahi gaituzte.

Beste gerra bat AEBtik urrun, aurreko bi mundu gerrak bezala. Europa Ukrainara bidaltzen ari den diru guztia AEBko armagintzaren industrian amaitzen da. Ukrainako lur benetan emankorrak AEBko Blackroock inbertsio funtsak erosi ditu, eta, aldi berean, Euroasia AEBri lehia egingo dion polo ekonomiko-komertzial bat izateko aukera ari da galtzen.

Gerra inperialisten eta genozidioen aurrean, guztiz beharrezkoa da herri librean antolaketa.

Gaur eta beti internazionalistak!!!!

CHIAPAS, BABESA AREAGOTZEKO BEHARRETAN

1994ko abenduaren 19an, Nazio Askape nerako Ejerzito Zapatistaren (EZLN) komandantzia nagusiak iragarri zuen Herri Indigenentzako Justizia eta Duintasunarekin.

Bakea izeneko kanpainaren ondorioz, eta bertako herritarren babesarekin, Chiapas estatuko 38 udalerriren kontrola hartuzutela. Inolako liskarrik gabe hartuz uten, eta une horretan zuten su-etena errespetatuta.

Udalerrri berriak 1917ko Mexikoko Estatu Batuetako Konstituzio Politikoaren baitan osatu ziren, 1993ko Lege Iraultzaile Zapatistek eta udalerrriaren beraren legeek arautu zituzten. Horrela sortu ziren Udalerrri Autonomo Errebelde Zapatistak (Marez), autogobernua kontseilu autonomoen bidez praktikatzan dutenak. EZLN soilik eraso militar edo paramilitarren aurrean babesaren emateaz

arduratuko litzateke. Beraien hitzetan, armadak defendatzeko erabili behar dira, ez gobernatzeko. Armada baten lana ez da polizia edo ministerio publikoaren agenzia izatea.

2001ean EZLNk azken aukera bat eman zion Mexikoko Estatuari, autogobernurako duen eskubidea, eta herri indigena guztiena, onar zezan. Milaka lagun kalera atera ziren nazio osoan, exijentziaren alde egiteko. Bestalde, klase politiko osoak, ezkerreko alderdiak barne, bizkarra eman zien Mexikoko jatorrizko herriei: Eskubide eta Kultura Indigenari buruzko San Andreseko Akordioak atzera bota zituzten. EZLNren inguruan antolatutako tzotzil, tzeltal, titi, txol, tojola bal eta zokek herriek esan zuten eskatzeko eta exijitzeko garaiak agortuta zeudela, eta aritzeko tenorera pasatzeko garaia zela.



Gobernu federalarekin eta alderdi politikoeekin harremanak erabat eten zirelako jakinarazi ondoren, 2003ko abuztuaren 9an bost karakol Zapatista eta horien Gobernu Onaren Batzordeak sortuko zirela iragarri zen.

Gobernu Onaren Batzordeek errotatibotasun-printzipioen, agintaldia errebotatzearen eta kontuak ematearen bidez funtzionatzen dute. Beheko boterearen benetako sareak dira. Horietan, udal-kontseiluak antolatzen dira, eta horiek, aldi berean, Erkidegoko agintariak biltzen dituzte. Horrela ari da ehuntzen boterearen forma emantzipatzaile hori, non gobernariak zerbitzari bihurtzen diren, herriari kasu eginez aginduko duten pertsonak.

Lurralde zapatista bisitatzen duen edonork sumatu ditzake autogobernu ariketa horren lorpenak. Zapatistek euren buruari aterpea, lurra, lana, osasuna, elikadura, hezkuntza, demokrazia, askatasuna, justizia, kultura eta informazioa ematen ahalegindu dira. Baina sorreratik, EZLN argia izan zen: bere borroka ez da biltzen dituen herrientzako onurengatik, ezta herri indigenentzat bakarrik ere; guztion aldeko borroka da. Barraskilo zapatistak eta Gobernu Onaren Batzordeak herri Maien ekarpena dira emantzipazioaren aldeko borroketan.

Indarkeria kriminala eta lekualdatze behartuak etengabeak dira Chiapaseko komunitateen bizitzan, bereziki 2021etik, delinkuentzia antolatua eskualdean jarduerak areagotu zituenetik. Chiapas Guatemalako mugatik gertu dagoenez, estatua kartelen arteko lurralde lehiatu bihurtu da, droga, arma eta pertsonen trafikoa ibilbideak kontrolatzeagatik, eta horrek eragin handia izan du bertako herritarren bizitzan. 2024an bakarrik, Chiapas %49ko igoera izan du

hilketetan, aurreko urtearekin alderatuta, eta zifra horrek ez du soilik estatistika bat adierazten, baizik eta beren lurrak eta bizimodua atzean utzita beren etxeetatik ihes egin behar izan duten milaka familia lekualdatuaren drama baita.

Egoera are gehiago larriagotzen da funtzionario publikoen geldotasunaren edo parte-hartze ezaren ondorioz, gobernu-maila guztietan talde kriminal horien hedapena ahalbidetu edo erraztu baitute, komunitateak babesik gabe eta indarkeriaren eta izuaren bidez lurraldeak kontrolatzen dituztenen esku utziz.

Indarkeria kriminalaz gain, indigenen lurraldeetako remilitarizazio prozesuak areagotu egin du gatazka Chiapasen. 2021ean, komunitate tseltalek salaketa bat jarri zuten beren lurraldean Guardia Nazionalaren kuartel bat eraikitzearen aurka, adieraziz proiektu horrek urratu egiten zuela aurretiazko kontsulta aske eta informaturako zuten eskubidea, haie baimenik gabe eta segurtasun nazionalaren ustezko premia argudiatuta ezarri baitzuten.

Presentzia militar honek, teoriarik gabesa eskaini beharko lukeena, herrien autonomia mugatu du, eskualdean tentsioak eta desplazamenduak areagotuz eta indigenen lurraldean gatazka berriak sortuz.

Indar militarren hedapenak, babestu beharrean, kanpoko interesak eta garapenerako interesak jatorrizko herrien eskubideen kontura lehenesten dituen politikari erantzuten dio. Estrategia horrek segurtasun eza eta indarkeria giroa sortzen lagundu du, eta babesik gabe utzi ditu beren lurraz eta baliabideez erabakitzeko eskubide konstituzional eta kulturala dutenak.

Chiapaseko giza eskubideen krisia ez da

ezta bakea defendatzen dutenen ahotsen errepresioarekin ere, ezta euren patua erabakitzeko eskubide historikoa a utonomiatik defendatzen duten komunitat een aurka ere.

Gauzak horrela, komunitate zapatistek, Subkomandante Moises bozeramailearen hitzez, beraien antolatzeko modua aldatuko dela jakinarazi dute, egoerak hortara eraman baititu.

Oinarri nagusia, hau da, ez bakarrik auto nomiari eusten dion lekua, hori gabe ere beste egiturek ezin baitute funtzionatu, T okiko Gobernu Autonomoa da GAL (Gobierno Autonomo Local). Komunitate bakoitzean, GAL bat dago non sostengu oinarri zapatistak bizi diren. GAL zapatistak autonomia osoaren muina dira. Agente eta komisario autonomoek koordinatzen dituzte, eta herriaren, arrantxeriaren, komunitatearen, parajearen, auzoaren, herrixkaren, koloniaren edo herri bakoitzaren autonomizazioen batzarraren baitan daude.

GAL bakoitzak bere antolamendu-baliabide autonomoak kontrolatzen ditu (eskolak eta klinikak, esaterako), baita auzoko herri anai-arreba ez-zapatistekiko harremana ere. Eta ordainsariaren erabilera egokia kontrolatzen du. Administrazio txarrak, ustelkeriak eta egon daitezkeen akatsak ere antzeman eta salatzen ditu.

Haien beharren, arazoen eta aurrerapen en arabera, GAL batzuk Gobernu Autonomo Zapatisten Kolektiboetan, CGAZetan (Colectivos de Gobiernos Autonomos zapatistas) biltzen dira eta hemen GAL deitzaileei interesatzen zaizkien gaiak eztabaidatzen eta adosten dira. Hala erabakitzen dutenean, Gobernu Autonomoen Kolektiboak

erkidego bakoitzeko agintarien batzarrerako deia egiten du. Hemen Osasun, Hezkuntza, Agroekologia, Justizia, Merkataritza, eta behar direnak proposatu, eztabaidatu eta onartu edo baztertzen dira. Zonaldeak eta eskualdeak herriek agintzen dituzte, herriei kontuak eman behar dizkiete eta Osasunean, Hezkuntzan, Justizian, Elikaduran dituzten beharrak eta hondamendi naturalek, pandemiak, krimenek, inbasioek, gerrek eta sistema kapitalistak eragiten dituen gainerako hondamendiek eragindako larrialdien ondorioz sortzen direnak betetzeko modua bilatu behar dute.

EZLNren egitura eta antolamendua berrantolatu da, erasoak, epidemiak, naturaren harrapariak diren enpresen inbasioa, okupazio militar partzialak edo osoak, hondamendi naturalak eta gerra nuklearrak gertatzen direnean, herrixken eta ama lurraren defentsa eta segurtasuna areagotzeko. Herriek bizirik irauteko prestatu dira, baita elkarrengandik isolatuta badaude ere.



BURUJABETZ(ET)ARUNTZ, ERALDAKETA HELBURU

2015-2016 inguruan herrigintzan arlo ezberdinetan lanean zebilen herritar talde batek, jendarte-ereduaren eta sozioekonomiaren inguruko kezkek eta hausnarketek elkartuta, Alternatiben Oi(h)artzuna eguna antolatu zuten lehenengoz. Aldarrikapen eta hausnarketa gune bat zabaldu eta burujabetzaren eta eraldaketaren bidean lanean ari diren egitasmoen topagune bat sortu nahi zuten. Urte batzuetako geldialdiaren ondoren, 2021ean, berriro elkartzeko beharra ikusi zuten eta, taldekide berriak batuta, 2022ko urrian Alternatiben Oihartzuna eguna ospatu zuten bigarren bez. Orduetik hona urteroko topaleku bihurtu da urriko hitzordu hori

eta, aurten ere, urriaren 19an, Alternatiben Oi(h)artzuneko kideek antolatu zuten euren ekitaldia.

Aurtengo hitzorduak, hala ere, izan ditu ezberdintasun batzuk. Izan ere, legegintzaldi honetan udalak burujabetzen aldeko lana indartzeko asmoa azaldu du eta bide hori marrazten hasteko lagun izan ditu Alternatiben Oi(h)artzuneko kideak. Elkarlan hortatik abiatuz sortu da Oiazun Burujabe egitasmoa, eta proiektu honen nondik-norakoak azaltzeko baliatu zuten aurtengo Alternatiben Oi(h)artzuna eguna.



Oiartzun Burujabe hastapenetan dagoen herri-proiektua da, egungo eredu ekonomiko kapitalista xahutzaile, jasanezin eta bidegabeari aurre egiteko helburuarekin sortua, baina guztion konpromiso eta inplikaziorik gabe aurrera egiterik izango ez duena. Ortzimugan, tokiko sozioekonomiaren sektore estrategikoen planifikazioa eta kudeaketa guztiz komunitarioa izatea bilatzen du, herritarrak ahaldunduz, egitasmoen jabe eta partaide eginez, eta horrek herrigintza eta udalgintza egiteko ereduaren sakoneko aldaketak eskatzen ditu. Bideak erakutsiko du noraino heltzen den egitasmoa, oiartzuar guztion eskutan dago orain.

Egitasmo honen eta beste zenbait konturen inguruan hitz egiteko loana Iñigez Susperregirekin elkartu gara. Beratarra jaiotzez, Oiartzunen daramatza bizitzen azken urteak, herrigintzan buru-belarri lanean. Alternatiben Oi(h)artzunako kide da, HemenGuk egitasmoko partaide eta Palestinaren aldeko ekimenen antolatzaile, besteak beste. Gurutzeko euren baseritik burujabetzaren aldarria teoriatik praktikara eramatea ongi dakien herritarra da loana, inguru hurbilenarekin konprometitua eta munduko bidegabekerien aurrean ere altxatzen den horietakoa.

1. Alternatiben Oi(h)artzuna taldeko kide moduan, sorreratik aritu zarete udalarekin elkarlanean Oiartzun Burujabe proiektua garatzen. Zein puntutan dago egitasmoa? Zeintzuk dira aurrera begirako erronka nagusiak?

Orain forma zehatza emateari ekingo diogu. Eskultura baten sortze-prozesuaren parekoa ikusten dut nik: hasieran egur zati gordin bati, lehen itxura ateratzen zaio eta gero, pixkanaka, baliabide ezberdinekin,



sakondurak, erliebeak.... ematen zaizkio. Beraz, Oiartzun burujabe fase horretan dagoela esango nuke: hasierako egurrari nahi dizkiogun neurri orokorrak eman dizkiogu eta orain xixeladak emateko ordua da. Dagoeneko jakina izanen den moduan 4 arlotan hasi gara momentuz lanean: euskara, elikadura, zaintza eta energia, hain zuzen ere. Arlo bakoitzeko eragileen batzarrak egin ditugu eta bertan zenbait proiektu proposatu dira. Orain lan-ildoak ongi zehaztu eta proiektu horiek garatuko dituzten mahaiak sortzen ari gara. Mahai horietan, proiektuen bideragarritasuna aztertu eta pixkanaka horiek aurrera eramatea dugu helburu. Sorkuntzarako garaia dugu datorren urtea eta, pausoz pauso, egitasmo honek noraino eramaten gaituen ezagutu ahalko dugu.

2. Urriaren 19an Alternatiben Oi (h)artzuna eguna antolatu zenuten, laugarrenez. Aurtengoa Oiartzun Burujabe egitasmoa gizarteratzeko erabili duzue, abiapuntu gisa edo. Egunaren zein balorazio egiten duzue?

Guretzako eguna borobila izan zen. Aldez aurretik pasatako kezka, arduritasun eta antzeko sentimenduen ondotik, urriaren 19a oparia izan zen guretzako. Goizeko hitzaldietan inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuen. Herritar askok dagoeneko badakite Oiartzun Burujabe martxan dela, baina egia esan ez dakit egitasmoa ongi ulertaraztea lortu ote den. Oraindik hasiera-hasieran gaude eta uste dut hori bidean aurrera egin ahala, praktikarekin, lortuko dela. Bazkarian ere, aldez aurretiko lan asko eginda, lagun talde polita biltzea lortu genuen. Guztiek ere herriko produktuekin osatutako bazkari ederraz gozatu ahal izan zuten, eta bazkalondoko bingo-kantua eta ondoko kontzertuak giro bikaina ekarri zuten plazara. Esan bezala, egunak emandago emaitzarekin oso gustora gaude antolatzaileak. Egun horren helburuetako bat herrian komunitate kontzientzatu bat badagoela ikusaraztea da, herriko norbanako eta eragile askok dagoeneko egiten duten lanari aitortza egitea, eta hori behintzat uste dut neurri batean lortu genuela.

3. Oiartzun Burujabe egitasmoak, epe luzera, bizitzarako beharrezkoak diren jarduerak tokian toki modu autoeratu, kolektibo eta komunitarioan planifikatu eta kudeatzea bilatzen du. Horrek, dena den, konpromiso indibidual eta kolektibo handia eskatzen du. Prest gaudela uste duzue? Jabetzen gara herritar gisa gure eguneroko erabakiek duten garrantziaz, inguruko ekonomia eraldatzeko gaitasunaz?

Orokorrean gizartea ez da jabetzen bere erabakiek ingurukoekiko duten eragina zenbaterainokoa den. Egunerokoan egiten ditugun edo ez ditugun ekintza ttikienek ere badute eragina inguruan, bertako ekonomian zein kanpokoan, ez gara ohartzen zenbaterainoko boterea izan dezakegun herritarrok gauzak aldatzeko. Talde konzientzia garatzeko lan handia egin beharra dago oraindik, baina pixkanaka ari gara pausoak ematen. Geroz eta jende gehiago bertan eta bertakoa erostearen ondorio pisitiboez ohartzen ari gara, komunitatearen eta elkar-zaintzearen beharraz... Bide luzea dugu oraindik baina hortan gabiltza, pixkanaka guretzako eta ondorengoentzako bidea berriak zabaltzen.

4. Zuen etxean elikagai ugari ekoizten dituzue eta, azoka eta kontsumo taldeen bitartez, haietako batzuk saldu ere egiten dituzue (ogia, sagardoa, ozipina, sagar-zukua...). Elikadura Burujabetzaren aldeko Gezamina elkarteko kide eta sortzaile zara, HemenGuk taldeko kide, BasHerri sareko lehendakari izana urte luzez... elikadura sektorea oso gertutik bizi duzu, beraz. Sektorearen egoera larria da baina, ba al dugu zer eginik herritarrek, herrietatik, sektorea hobetzen laguntzeko?

Noski asko egin dezakegula, gure esku dago hau ere! Bertako nekazari eta abeltzainen biziraupena herritarren baitan dago inolako dudarik gabe! Arlo honetan ere kapitalismoak eraman gaituen bidetik baztertu beharko dugu, eta horrela egin beharko dugu zeren eta egungo bizimodua jasangaitza da, bukatuko da.... Ezinezkoa da munduaren beste puntatik ekarritako elikagaiak jaten jarraitzea denbora luzez; esaldi egina dela esaten bada ere, munduak, lurak, baliabide finitoak

dituela esatea egia borobila da! Hortaz, gure aiton-amonek zeukaten elikadura moduan begiak jarri beharko genituzke, bertakoa jaten zuten, bertan ekoiztutakoa.... Askotan esan ohi dudan moduan, ez du inolako zentzurik otsailean hemen tomateak edo kalabazinak jaten egotea. Urtaro bakoitzak bere barazkiak dituela ulertu beharra dugu, eta horiekin jolasean bazkari goxoak prestatzen ikasi beharra dugu. Garaian garaikoaz gozatzean dago gakoa, hortik hasten da iraultza! Baina, era berean, urtetako ohiturak aldatzea batere erreza ez dela ere ulertzen dut, guztiarekin kontsekuentea izatea ez zaigu batere erraza egiten. Pixkanaka aldaketa txikiak egiten baditugu emaitza politak eskuratuz joango gara.

5. Bukatzeko, internazionalismoarekin, herrien arteko elkartasunarekin, konprometitutako pertsona zaitugu. Bira Zapatistaren antolakuntza taldeko kide zara eta Oartzunen Palestinaren aldeko elkartasun ekintzak antolatzen ere bazabiltza, besteak beste. Orokorrean, hala ere, desmobilizazio soziala gero eta

handiagoa da, badirudi gero eta indibidulistagoak garela, insensibleagoak, konplizeagoak...

zkenaldian herritarrok maizen egiten dugun ariketa norberaren zilborrai begira jartzea dela esan dezakegu, geroz eta enpatia gutxiago daukagula ematen du. Ez dakit zergatik ote den, beldurrak diren, nekea, pesimismoa... Orokorrean oso sakabanatuak gaude eta horrek asko tristetzen nau. Egungo estimulu indibidualistak alde batera uztea ez zaigu batere erraza egiten, dependentzia asko ditugu eta horrek oztopo handiak jartzen dizkigu gizarte moduan. Kanpora begiratzeak on egiten digula uste dut, besteengandik ere aunitz ikasten ahal dugu, beste errealitateak ezagutu, handik hona proposamenak ekarri.... Herrien arteko elkartasuna bultzatzea gauza polita da, aberasgarria eta egingarria. Eduardo Galeanok idatzi zuen bezala, "jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezakete". Honek, nire ustez, ederki laburbiltzen du komunitate-lanaren edertasuna.



SINGULARITATE-BAKOIZTASUNA (BEREZITASUNA?) ORDEZKAEZINTASUN GISA

“...Levinasen azalpenean funtsezko terminoa uniqueness da”.

(Nola para ote genezake uniqueness termino hau euskaraz? Hiztegiatarara jo dut: uniqueness-bakartasun, bakuntasun, bakoiztasun, ordezkaezintasun)

Era guztietara, uniqueness (bakoiztasun-berezitasuna) termino korapilatsua da; izan ere, lehen inpresio batean, hirugarren pertsonaren ikuspegitik uler genezake, hau da, gutako bakoitza gainerako pertsonetikiko desberdina izatea eragiten duten ezaugarriak eta gaitasunei buruzko gaia balitz bezala. Lehen inpresio horrek desberdintasunaren ideia iradokitzen du, berehala identitate eta identifikazio gaitetara eta bakoiztasun-berezitasunari buruzko kanpoko ikuspegi batera eramango gaituena, non, ikuspegi abstraktu batetik, gizaki bakoitza nolabait beste edozeinekiko desberdina dela argitu genezakeen. Bere lana irakurtzen dudanean, Levinasek bakoiztasun-berezitasunari buruzko beste galdera bat aipatzen du, eta galdera hori ez da "Zerk egiten nau bakar?" — beste guztietatik ezberdin egiten nauen nire buruari buruzko galdera — baizik eta "Noiz du axola ni neu izateak?" —. Azken galdera horrek ez du aztertzen, hain zuzen ere, besteengandik bereizten nauen guztia, baizik eta egoerak, gertaera existentzialak bilatzen ditu, non nire bakoiztasuna "jokoan" (?) dagoen eta, beraz, ni neu auzitan-kuestioan

nagoen.


(joko, kuestio, auzi...)

Levinasek buruan dituen situazioak norbaitek dei bat egiten didaneko situazio-arietara-egoerak dira, non deia niri eta ez beste inori zuzenduta dagoen. Egoera horietan deia niregana dator eta nik bakarrik erantzun dezaket. Bestela esanda, egoera horietan erantzukizun bat aurkitzen dugu, eta horregatik iradokitzen du Levinasek erantzukizuna "subjektibotasunaren esentzial, lehen eta funtsezko egitura" dela (Levinas, 1985, 95. or.).

... Zygmunt Bauman-ek Levinasen ideiak laburbiltzen dituenean, Levinasentzat erantzukizuna "bakoitzaren (niaren) lehen errealitatea" dela idazten du (Bauman, 1993, 13. or.), oso egoki ulertzen du hemen eztabaidatzen ari garena, ederki esan baitezakegu neuretzat ardura bat dagoela, nire bakoiztasun-berezitasuna "jokoan" jartzen dela eta ni neu jokoan nagoela. Horrela, hemen bakoiztasun-berezitasuna ez da desberdintasun-diferentzia-kontua— hirugarren pertsonako ikuspegia— baizik eta ordezkaezintasun-kontua— lehen pertsonako ikuspegia. Bakoiztasun-singularitatea,

Levinasek dioen bezala, "nire ordezkari beste inork egin ezin duena" egiteari dagokio (Levinas, 1989, 202. or.) —.

"EHUN URTEKO GERRA PALESTINAREN AURKA" LIBURU AURKEZPENA



IÑAKI ALEGRIA LOINAZ (Donostia, 1957-) EHUko irakaslea da. Informatika Fakultatean lan egiten du 1981etik, Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia sailean. 1988an Ixa taldea sortu zuen taldeko kideetako bat izan zen. Xuxen zuzentzaile ortografikoaren eta euskarako itzultzaile automatikoen (Matxin, Openrad, Elia.eus...) sortzaileetako bat izan da.

Liburu nabarmenak:
"Ehun urteko gerra Palestinaren aurka". Rashid Khalidi-ren liburuaren itzulpena. UEU (2024).
"Latinoamerikaren zain urratuak". Eduardo Galeanoren liburuaren itzulpena. UEU (2022)
"Poesiaren eskantsio automatiko"a. Manex Agirrezabal. Iñaki Alegria eta Mans Hulden, UEU (2017)

Azaroak 14ean gurera gonbitu genuen Iñaki Alegria, bere azken itzulpen liburuaren berri hitzaldi bat emateko: Ehun urteko gerra Palestinaren aurka. Rashid Khalidik idatzitako liburua eta Iñakik berak itzulia. Hitzaldi honetara hurbiltzeko aukerarik izan ez? Lasai, nik kontatukoizut...

Hainbat eragilek elkarlanean herrian hainbat ekitaldi antolatu genituen azaroan Israel egiten ari den genozidioaren aurrean erantzun bat emateko eta Palestinar herritarrei gure babesa emateko. Programa horren barruan antolatu genuen liburu aurkezpen hori. Hizlaria Fernando Garatek aurkeztu zuen, Palestinar mugimenduan murgilduta dagoen laguna. Berak eta Iñaki Alegriak aspalditik ezagutzen dute elkar mugimendu internazionalisten bueltan. Iñakik oso gertutik ezagutzen du Palestinako gatazka, bertan egon baitzen 1990ean, lehendabiziko intifada garaian. 2023ko udan, Irlandan zegoela, liburu haren jatorrizko bertsioa irakurri zuen, ingelesez. Bereziki interesgarria iruditu zitzaion liburua, eta UEUri itzulpena argitaratzea proposatu ondoren, lanari ekin zion. Jubilatuzenez, presarik gabe hasi zuen lana, baina handik gutxira Hamasen urriko erasoak eta ondorengo gertaerak gertatu ziren eta ondorioz lehenbailehen liburua argitaratzeari ekin zion.

Kolonizazio eta erresistentziaren ehun urteko historia (1917-2017) jasotzen du liburuak, baina azken hilabeteetan

Israelek eragindako sarraskia kontuan hartuta, egileari eskatu zitzaion oraingo egoera jasoko zuen hitzatzea. Eta apirilaren 26an bidalitako “azken hitza” gehitu ahal zioten euskarazko argitalpenari. Horrek balio erantsia ematen dio liburuan jasotako analisiari.

Rashid Khalidi egilea Edward Said katedraren titularra da New Yorkeko Columbia unibertsitatean. Beiruten bizi zen Libanoko gerraren garaian eta Palestinako ordezkariaren aholkulari aritu zen Madrilgo eta Washingtongo negoziazioetan. Negoziazio horien ondorioz, gerora, Osloko akordioa sinatu zen. Rashid Khalidik senide ezagunak izan ditu. Esaterako, aitona Jerusalemgo alkatea izan zen, osaba erbesteratuta egon zen britaniarren garaian, aita NBEko itzultzailea... Liburuan ondorengo gertakarien inguruan hitz egiten du, besteak beste: 1917ko Balfour Adierazpena, zeinak Palestinaren patua erabaki zuen, Israelek 2000ko hamarkadaren hasieran Gazako Zerrendaren kontra egindako setioa, eta Gazako biztanleriaren aurkako aldizkako gerrak. Gertaera horiek nabarmentzen dute Palestinaren aurkako ehun urteko gerraren izaera koloniala, baita hura burutzeko kanpoko botereek izan duten ezinbesteko eginkizuna ere.

Liburuaren nondik norakoak azaldu ondoren, tertuliaren txanda ireki zen. Bertan, oso kontu interesgarriak esan zizkigun Iñakik, hala nola Frantziaren inplikazioa 6 eguneko gudan, Osloko akordioen nondik norakoak, baita gaur egungo egoeraren analisia. Alegriaren esanetan, Trumpek Abraham akordioak bultzatu zituen eta Jerusalem jarri zuen EEUUko embaxada. Horrez gain, Hamasen garrantziaren berri ere eman zigun. Bertaratu ginenak zapore gazi-gozoakin

atera ginen, Palestinarren borroka historikoari buruz jakintza gehiago jaso izanaren gozotik, haien mendeetako errealitate krudelara utzitako zapore gazira. Ibaitik itsasora, Palestina libre!!

Eiger Steck



GENOZIDIOARI STOP JARDUNALDIAK

Azaroak 6-27ra Eskuahaldunak eskultoreen elkarteak Genozidioari stop eskultura erakusketa egon zen ikusgai pleno aretoan. Eskuahaldunak elkarteko Guillermo Olmoren adierazpen batzutan artisten kolektiboa beste modu batera irits daitekeela eta iritsi behar duela gizartera, tresna artistikoa oso tresna indartsua baita. Erakusketari dagokionez, batez ere eskulturak ikusi ahal izango ditugu, baina grabatu eta margolanen bat ere egongo da ikusgai. Palestinar herriaren tragediari buruz egindako lanak dira, hauek ez dute edertasuna bilatzen, kasu honetan gatazka salatzea bilatzen dute.

Azaroak 8an Palestinaren aldeko performantzia egin zen Oiartzungo plazan. Pagoarteko kideak gidatuta

herriko plazan Gazako ohiko egun baten errepresentazioa egin zen, sirena soñu, bomba hotsak eta hildakoak lurrian. Amaieran palestinatar musikari talde batek zuzeneko eman zuen (SOL BAND). Ehundaka herritarrek hartu zuten parte, gerora bideo bat zabaldu da performantze horrena.

Azaroak 14ean pleno aretoan, Palestinari Oiartzuna herriko taldeak antolatutako hitzaldia izan genuen. Iñaki Alegria, bere azken itzulpen liburuaren berri hitzaldi bat emateko: Ehun urteko gerra Palestinaren aurka. Rashid Khalidik idatzitako liburua eta Iñakik berak itzulia. Hitzaldiaren ondoren solasaldi aberats bat izan genuen Iñakirekin gatazkaren nundik norakoak eta hurrengo erronkez hitz egiteko.



SOZIALISMOAREN HASTAPENAK: EBOLUZIOAREKIN DUGUN KONPROMISOA

Internazionalismoa: polo anitzeko mundua.

Herrien arteko adiskidetasunean eta elkartasunean oinarritutako mundua eraikitzen duen pentsamendu pentsamendu internazionalistarekin konprometitzen gara/naiz. Era berean, antiinperialista naizela adierazten dut.

Inperialismoek munduan eraiketa gehien eragin dituzte. Ez da balorazio soil bat, egitate bat da. Berak eragindako gerren bidez ez ezik, bere egiturazko indarkeriaren bidez ere erail du, pobrezia izanik indarkeria horren adierazlerik gordinena. Egunero berrogeita hamar mila pertsona hiltzen dira edateko urik, proteinarik, txertorik, antibiotikorik edo medikurik ez dutelako. Borondate oneko inork uste al du zifra hauen atzean ez dagoela sistema kapitalista? Naturaren edo kasualitatearen ondorio dela agian? Ausartuko ginatke esatera gosea ez dela biolentzia? Edo 19 milioi umek desnutrizio larria pairatzea bakea dela?

Konpromisoa hartzen dugu/dut kulturari, ekonomiari eta demokraziari buruzko ikusmolde eurozentalistari aurre egiteko, dominaziorik zein menpekotasunik gabeko polo anitzeko mundua eta lerrokatu gabeko mundu mailako gobernua oinarri hartuta, zeinak giza eskubideak, bakea, elkartasuna eta herrien berdintasun burujabea bultzatuko dituen.

Konpromisoa hartzen dugu/dut Euskal

Herria herri solidario bihurtzeko, gugandik hasita. Beste herri batzuekiko elkartasuna bultzatzen duen manifestazio, ekimen edo ekintzetan parte hartzeko. BDS kanpaina (Israelgo-estatu sionistari boikota) eta tankera horretako ekimenak modu kontsekuentean bultzatzeko. Borrokan dauden herriei babes soziala emateko. Europak sortzen dituen gerren kontra agertzeko.

Konpromisoa hartzen dugu/dut gerra bultzatzen duten edota herrien askatasunaren alde egiten ez duten alderdi, koalizio, fronte eta mugimenduak ez babesteko. Elkartasuna ahalik eta erarik zuzenean gauzatu behar da, betiere karitatea, inposizioa edo menpekotasuna baztertuz.

Konpromisoa hartzen dugu/dut Euskal Herria beste herri batzuetako errefuxiatu politikoak eta ekonomikoak hartuko dituen herria izan dadin lan egiteko, elkartasunerako, harrerarako zein lanerako espazio instituzionalak eta herritarrak sortuz.

Konpromisoa hartzen dugu/dut NATOren aurka egoteko. Gerra-makina besterik ez den erakunde hau, AEBek eta bere herrialde sateliteek, mundua menperatzeko erabiltzen duten absolutismoaren ikur baita.


“Botere gogor” hori “botere bigunarekin” uztartzen da TTIP bezalako zein beste hitzarmenen bidez. TTIPek, Merkataritza eta Inbertsio Librerako Itunak, mundu

mailako merkatu neoliberal handiena
sortu nahi du. Haren bidez, monopolio
handiek, daukagun burujabetza apurrari
mehatxu egiten diote, maila guztietan
(politika, elikadura, energia, ekonomia,
industria, kultura...), eta ongizate
estatua suntsitzen dute, baita jabetza
publikoa eta lan eskubideak ere.

NIRE OHARRAK


NIRE OHARRAK

D.E.B.A.



Gure

gomendioa...



GERRA GAZAN
komikia
Joe Sacco
(Astiberri, 2024)

D.E.B.A. FANZINEAN PARTE HARTU NAHI DUZU?

ZURE IRITZIA ARGITARATU?

IDATZI HURRENGO HELBIDERA!

debafoanzinea@riseup.net